

HERIOA ETA MAISTRA OHIA

Mariasun Landa Etxebeste

Herio Anderea ezari-ezarian sartu zen gela hartan. Eskuetan zeukan suzko txartelak zera zion:

Hirurogeita zortzi urteko emakumea. Maistra ohia. Alarguna. Seme-alabarik gabekoa. Otzana, tematia eta euskaltzalea. Bakarrik bizi da. Lan erraza.

Presaren zuten Herio Andereak eta kasuak zailtasunik gabekoa zirudiela ikusita amen batean prestatu zen bere eginkizuna betetzera. Halere, harrিতuta geratu zen andeari hurbildu zitzaionean: ohean zegoen, noski, baina liburu eta hiztegiez ingurututa. Zurbil zegoen, noski, baina arreta handiz ari zen koaderno batean izkiriartzen. Arnas-hartze nekosoaren zuten, noski, baina begininien dirdirak bizitzaren indarra adierazten zuten... Bo, ez zen lehen aldian norbait gogoz kontra eramatea suertatzen zitzaioela, beraz, andearen aurrean ipini zen ohiko formula erabiliz:

- Zure orduak jo du.

Maistra izan zenak bere koadernotik begiak altxa eta ez zuten inongo harridurazko imintziorik egin arnasa etetera zetorkion Herio Ahalguztidunaren aurrean...

- Ikusten dut, bai nire bila etorri zarela Herio Anderea, eta prest naukazu esango nizuke esku artean dudan eginkizuna bukatuta izango banu. Hari fin-fin batek lotzen nau mundu honetara eta lokarri hori ebakitzeko zure laguntza ondo etorriko litzaidakeela aitortu behar dizut...

Herio Andereari ez zitzaion arraroa egin horrelako hizketaldia. Asko eta asko ziren bere azken laguntza eta kupida eskatzen zutenak... Erantzutera zihoala, zera bota zion tupustean maistra ohiak bere ohetik:

- Galdera hauetatik zein da zuzena:

- a- Gaur ez dago nor naizen ez dakienik.
- b- Gaur ez dago inor naizela ez dakienik.
- a- Gaur ez dago inor naizena ez dakienik.
- a- Gaur ez dago nor naizenik ez dakienik.


Herio Anderereak, kopeta zimurtu eta lotsaren lotsaz, galdera errepikatze eskatu zion hiltzorian zegoenari....

- Ikusten? -jarraitu zuten maistra ohiak- Ez da hain erraza. Mila bider saiatu nintzen HE1 euskara-maila ateratzen eta inoiz ez nuen lortu, jubilatuta behar izan nuen euskara-titulua ziztrinik gabe eta beti horrelako galdera mareatzaileengatik! Entzun, esaterako, honako hau eta

esaidazu ditzosozko ariketa hauek nahasteko modukoak ez ote diren...

- Zein da zuzena?

- a- berehala etorrarazi egin zion.
- b- berehala etorri arazi zion.
- a- berehala etorrarazi zuen.
- a- berehala eratorri zuen.



Ordurako ezohiko desioa sentitzen hasia zen Herio Anderea Ahalguztidun alfabetatugabea, maistraren ondoan eseri eta koaderno horietako bat esku artean.

- Etxerako lanak zorroan...

- a- neramatzon.
- b- neramazan.
- a- ninderamatzon.
- a- neramatzan.

Aurpegia argitu zitzaion herio Andereari. Galdera bai erraza oraingo honetan, *neramatzan* zen erantzun zuzena. Ezbairik gabe. Eta hurrengo ariketak, nolakoak ziren?

Eta herioak aldegin zuten beste egun batean jarraituko zutelaren esanaz.

Eta maistra ohia ariketak egiten aritu zen denbora luzez, harik eta egun batean EGA titulua lortu zuten arte.